Lan-eskaintzen erregistroa 2019ko urrian

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2019ko urrian Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.824 izan da, irailean baino 132 gehiago eta joan den urteko urrian baino 170 gehiago. Egunean bataz bestez 79 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino eskaintza bat gutxiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2019ko urrian 344 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 573 Gipuzkoan eta 907 Bizkaian. Lan-eskaintzen %49,7 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 31,4 Gipuzkoan eta % 18,9 Araban.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 89 hazi dira eskaintzak (162 eskaintza gehiago) eta Bizkaian %17,8 (137 eskaintza gehiago); Gipuzkoan, aldiz, % 22,6 jaitsi dira (167 eskaintza gutxiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 31 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 9,9ko hazkundea; Bizkaian eskaintza kopurua 151 eskaintzetan hazi da, % 20ko hazkundea, eta azkenik, Gipuzkoan 12 eskaintza gutxiago izan dira, %2,1eko murrizketa.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. 5 eskaintzetik ia 1 (%23,4) zientzia teknikarientzat erregistratu da (426 eskaintza); industriako lanbide-profilak jarraitzen dio (315 eskaintza, %17,3a). Laguntzako teknikarien, zerbitzuen eta ez-kualifikatuen lanbide-profilek ere pisu nabarmena dute erregistratutako lan-eskaintzetan; 284, 259 eta 229 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak zuzendarienak (37) eta lehen sektorekoak izan dira (10).

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, kopuru absolutuetan gehien hazi den eskaintza ez kualifikatuen profila izan da (+47 eskaintza, % 25,8ko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, lehen sektorekoak izan dira gehien hazi direnak (% 208ko hazkundea, 25 eskaintza gehiago). Irailarekin alderatuz, jaitsi diren eskaintza bakarrak zerbitzu (-50, %16,2ko murrizketa) eta zuzendari profileko eskaintzak izan dira (-4 eskaintza, %28,6ko murrizketa).

Urte arteko saldoari erreparatuz, gehien hazi direnak, kopuru absolutuetan, zientzia teknikarien profileko eskaintzak izan dira (91 eskaintza gehiago, %42,9ko hazkundea); kopuru erlatiboetan, aldiz, lehen sektorekoak izan dira (% 184,6ko hazkundea, 24 eskaintza gehiago). Jaitsi diren eskaintza bakarrak laguntza-teknikarien profilekoak izan dira (9 eskaintza gutxiago, %3ko murrizketa).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 9,5ek kontratu mugagabea eskaini dute; % 90,1ek, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,4k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 173 izan dira, 25 gutxiago aurreko hilabetearekin alderatuz, %12,6ko murrizketa. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten eskaintzak 167 hazi dira: 1.643 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea %11,3koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2019ko urrian 8 izan dira, aurreko hilean baino 10 gutxiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen 4 eskaintza gutxiago erregistratu dira (% 2,3 jaitsiera), aldi baterako kontratuen eskaintzak, aldiz, %11,8 hazi dira (173 eskaintza gehiago) eta, azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintza 1 gehiago izan da.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2019ko urrian erregistratutako lan-eskaintzen %76,6 (1.398 eskaintza) 0 tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 12,4k (227) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaje txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenek, hain zuzen; % 3,2ko eta % 0,4ko pisua dute, hurrenez- hurren (59 eta 8 eskaintza guztira).



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi diren eskaintzak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (95 eskaintza gehiago, %7,3ko hazkundea).Balio erlatiboetan 3 eta 5 urte arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira hazkunde handiena jasan dutenak (% 73,5eko hazkundea, 25 eskaintza gehiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, bilakaera ondorengoa izan da: gehien hazi diren eskaintzak, balio absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (215 eskaintza gehiago, %18,2ko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, 3 eta 5 urte artekoa eskatzen dutenak izan dira (%90,3, 28 eskaintza gehiago). Gehien murriztu diren eskaintza motak, bai

kopuru absolutuetan eta baita erlatiboetan ere, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (68 eskaintza gutxiago, %23,5ko murrizketa).

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 14,7k zehazten du datu hori (1.824 eskaintzetatik 268). 268 eskaintza horietatik, 200 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 68k lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 41 gehiago erregistratu dira irailarekin alderatuz. Lanaldi partzialeko eskaintzak 1 gehiago izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko 59 eskaintza gutxiago izan dira (% 22,8ko murrizketa); lanaldi partzialeko eskaintzen kasuan, 5 gutxiago erregistratu da (% 6,8ko murrizketa). Aztertutako hiru hilabeteetan (2018ko urria, 2019ko iraila eta 2019ko urria), lanaldi partzialeko eskaintzen pisu handiena 2018ko urrian izan zen, %22ko pisuarekin, lanaldi mota zehazten duten eskaintza guztien artean.

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Erregistratutako eskaintzen % 3,5 izan dira ABLEen bitartez kudeatu direnak, 1.824 eskaintzetatik 64. Hazkundea nabarmena da, izan ere, aurreko hilean, 7 izan ziren eta 2018ko urrian 10 soilik.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 79,3k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.824 eskaintzetatik 378k soilik zehaztu dute.

378 eskaintza horietatik, 147k LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 42,2k); gehien eskatu den prestakuntza maila izan da. Horiei estuki jarraituz, unibertsitateko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak daude, 146 eskaintza (%42). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 59 eskaintzekin (%17). Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, erregistratutako 26 eskaintzekin, eta % 7,5eko pisua dute erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 378 eskaintzen artean.



Eboluzioari dagokionez, esan beharra dago urrian lan-eskaintza gehiagotan zehaztu dela prestakuntza maila, irailean baino (378 eskaintza urrian; 262 irailean), eta hauen pisua eskaintza guztien artean ere handiagoa izan da (%20,3 urrian eta % 15,5 irailean).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintza mota guztiak hazi dira. Unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien hazi direnak, 50 eskaintza gehiago (% 52,1eko hazkundea).

2018ko urriarekin alderatuz ere, eskaintza mota guztiak hazi dira; gehien hazi direnak LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (27 eskaintza gehiago,% 22,5eko hazkundea).

- ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen den jarduera administrazio publikoa izan da, eskaintzen % 24,3ko pisuarekin (444 eskaintza guztira). Garrantzitsuak izan dira ere industria eta merkataritza %11,5 eta %11,2ko pisuarekin, hurrenez- hurren (210 eta 204 lan-eskaintza, 1.692 eskaintza guztietatik, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz gero, gehien hazi diren eskaintzak, kopuru absolutuetan, administrazio publikokoak izan dira (237 eskaintza gehiago, %114,5eko hazkundea). Informazio eta komunikazio jardueretako eskaintzak izan dira gehien hazi direnak kopuru erlatiboetan (% 143,5eko hazkundea, 33 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, gora gehien egin dutenak, kopuru absolutuetan, beste zerbitzutako eskaintzak izan dira (-+58); kopuru erlatiboetan, aldiz, etxekoak izan dira (+% 86,7). Bestalde, industriakoak izan dira gehien murriztu direnak, (20 eskaintza gutxiago, % 8,7ko murrizketa).